

'Ane' liburua kaleratu du Alaine Agirrek, Txandaka bildumako laugarren alea

Bermeo



Kultura

'Maren', 'Libe' eta 'Oier' etorri ziren lehenengo. Ale bakoitza independentea den arren, aurrekoetan Aneren zertzeladak zeuden, eta orain ere beste pertsonaia tarteka agertzen dira.

2020/12/17

Olaia Zabalondo

Gazte nahiz helduek irakurtzeko moduko bilduma bat abiatu zuen Erein argitaletxeagaz **Alaine Agirre idazle bermeotarrak** 2017. urtean, eta bilduma horren baitako azken liburua aurkeztu zuen atzo, Donostian: **Ane**.



Alaine Agirre 'Ane' liburuagaz. Argazkia: Erein argitaletxea

Anek institutua amaitu berri du, eta zer egin erabakitzeko ordua heltzen zaio. Gurasoek berarentzat aukeratu duten Ekonomia ikasketetan ez du bere burua ikusten. Beste planik ez dauka, baina gurasoen etxea utzi eta Bilbon hasten du bide berria. Pisu bat partekatzen du Mikel eta Aitziberrekin; bi pertsonaia horiek aurkeztuko ditu oraingoan Anek. Anek eta Mikelek hasieratik konexio handia daukate; "helduagoa izanik, Anek behar duen baretasuna emango dio. Transexuala da". Agirrek dio transexualitateaz ez duela gai nagusi bat egin gura izan, "zeharka planteatzen den errealitatea baino". Aitziber, berriz, aplikatua eta saiatua da, Medikuntza ikasten ari da. Aneren kontraspilua izango da.

Era berean, harategi batean lanean hasiko da. Han ikasiko ditu unibertsitatetik kanpo ikasten direnak, "nagusi gogor baten aginduetara prekaritatean lan egiten". Agirreren arabera, liburuak ez du gai nagusi bat, bilakaera pertsonalaz ari da, "bidez beraz eta tartean bizitakoaz".

Aurrekoak. *Maren* izan zen bildumako lehenengoa, eta, itxuraz maitasun istorio bat kontatu arren, protagonistak bere burua ezagutzeko bidea erakusten du. *Libe* etorri zen gero; horretan, maitasuna bizitzeko modu desberdinen talka agertzen da. *Oier* izan zen bildumaren hirugarren protagonista. Amak esaten dio urtebeteko bizitza geratzen zaiola, eta horrek kolpetik arrakalatuko du haren bizitza.

Aurreko lan horietan irakurleek Aneren zertzelada batzuk jaso zituzten, eta oraingoan bera da protagonista. **Ale bakoitza independentea** den arren, irakurle zaharrek tarteka aurreko protagonistak ikusiko dituzte. Agirrek esan du sortu dituen **personaia guztiak gaztetasuna atzean utzi eta heldutasunerako bidean** daudela: "Galderak egin eta galdera horiei erantzun propioak bilatzen saiatzen dira, nor bere bidea egiten".

Busturialdeko albisteak euskaraz, libre eta kalitatez jaso nahi dituzu? Horretarako zure babesa ezinbestekoa dugu. **Egin zaitez HITZAKide!** Zure ekarpenari esker, euskaratik eginda dagoen tokiko informazio profesionala garatzen eta indartzen lagunduko duzu.

Egin HITZAKide

Busturialdeko Hitza Comment Policy

HITZAK ez du irainik edo antzerako hitzik jasotzen duen iruzkinik onartuko.



0 iruzkin Busturialdeko Hitza Disqus' Privacy Policy

1 Saioa hasi

Gomendatu Tweet Partekatu

Onenetik hasita

Hasi eztabaida...

HASI SAIOA HONEKIN

EDO ERREGISTRATU DISQUS-EKIN



Izena

Egin lehen iruzkina.

Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Do Not Sell My Data

DISQUS

94-627 10 85 / 607 29 22 23

Nor gara

94-618 72 99 / 647 35 56 54

busturialdea@hitza.eus / gernika@hitza.eus

busturialdea@hitza.eus / bermeo@hitza.eus

Elbira Iturri kalea, z/g. 48300, Gernika-Lumo

Atalde 17, atzealdea. 48370, Bermeo




Argitalpen politika

Aniztasun politika

Pribatutasun politika

Cookieak

Babesleak:



LOGOTIPOAK | ILUSTRAZIOAK | BISITA-TXARTELAK | KARTELAK | POSTALAK | ESKUORRIAK

1barri



**PISEINUA
KOMUNIKAZIOA
EUSKARAZ**

607 490 166
94-684 44 36
info@1barri.eus
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 
1barri.eus 

Agenda